

BERRIGARA

5. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1994, urtarrilak 28

**ORTURAREN
KONTRAKO
MOZIOA EZ
ZEN
PLENOAN
ONARTU**

**HUELGAK
ERABATEKO
ERAGINA
IZAN ZUEN
BERGARAN**

KIROLAK


**EUSKADIKO
OPEN
KAPELKETAKO
MENDI
BIZIKLETA
LASTERKETA
UBERAN**



**Lehen bezala
gaur egun ere
ikasleak jai giroan**

IMANOL IRIAGARA

ZAPATADENDAK




ALDASORO

Bergarako Espoloian aurkituko gaituzu

Aprobetxa itzazu Sasoialdi bukaerako prezioak!!

ZAPATAK

POLTSAK



BERGARAKO

OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Irizar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre 1, behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraizkozuri 5, behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi 18, behea ezk. ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta 3. 2.B. ☎ 76 38 54
- GUTIERREZ Karen - Bidekurutzeta 6 2. (Lehen notaria zegoen tokian). ☎ 76 05 77

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Iruñe - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5 2. E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3. A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia...) - Simon Arrieta, 3 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza 2, 1. ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOLOGIA Gabinetea (Logopedia, foniatria) - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (76 14 80). ☎ 76 53 13

Argitaratzailea:
Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.
Zuzendaria:
Gorka Elorza.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkoroberezar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Gorka Elorza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña eta Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkoroberezar, Juan
Martin Elxepuru, Josu Oregi,
Maripi Laskurain, Nerea Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa,
Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Aitziber Aretxaga,
Ainhoa Bikuña, Asier
Madinabeitia, Josune Iñarra eta
Ane Miren Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifnu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.500 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK



Atzoko greba de-
ialdiak erabateko erant-
tzuna izan zuen Bergaran.

Asteazken arratsalde-
an sindikatuetatik jasota-
ko datuen arabera, Berga-
rako lantegi inportante-
netan (batean izan ezik)
grebara irtetzea erabaki
zuten langileek eta beraz
ELA eta LABek Bergaran
eginiko greba deialdia

arrakastatsua izan zela
esan daiteke. Lantegi txi-
kietan erantzun bera jaso-
tzea espero zuten sindi-
katuek. Bergarako Uda-
lak, ikastetxeek eta ko-
mertzioek ere itxi egin zu-
ten. Bestalde, atzo egite-
koa zen Bergaran ELA eta
LABek konbokatutako es-
kualde mailako manifest-
azioa.

Greba deialdiak erabateko erantzuna jaso zuen Bergaran

ITURRI ONETIK

Akonkaguako gailurrean

Bergaratik Akonkaguara joandako espedizioako 5
kideetatik 3k gailurra zapaltzea lortu dute.
Abenduaren 27an abiatu ziren Argentinara Imanol
Bolinaga, Martin Arreseigor, Juan Ramon Garitano,
Miguel Angel Murgiondo eta Roman Laskurain.
Garitano, Murgiondo eta Laskurainek lortu omen dute
Ameriketako gailurrik garaiena (6.959 m.) zapaltzea.
Espediziokideak atzo osteguna heltzekoak ziren
Bergarara.

ESAN DUTE

"Askotan baserritarren
bakardadeaz eta
irekitasunaz jende asko
aprobetxatu izan da
baserritarra
engañatzeko eta
lapurtzeko".

MAITE ARISTEGI
ENHEko abokatua
EUSKADI IRRATIA

"Euskadiko Dantza
Txapelketa
irabazteagatik ematen
duten Nestor
Basterretxearen
eskultura, duela 5
hilabete eskaini genion
Udalari Udaletxean
jartzeko eta oraindik
etxean daukagu"


EDU
MURUAMENDIARAZ
ETA AMAIA AGIRRE
Dantzari bikotea
EGIN

[Igandeko Mundialari
buruz]
"Ibilbidea ezagutzen
dut etazirkuitu azkarra
eta gogorra da".

IÑIGO IGARTUA
Txirrundularia
EUSKADI IRRATIA



Aldizkari honak
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honak
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Beheko Taberna

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.**
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ZUBIETA

elektragintza

✓ Motoren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gailastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

PETRIKILO MASAJISTA KARTA-AZTIA

☎ 76 47 24 (Gonzalo)



ALADDIN

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



GREMLINS 2

Igandea: 11.30.



BLADE RUNNER (B.O.)

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Walt Disneyren azken arrakasta. *Agrabah* arabiar erreinu exotikoan kokatuta, *Aladinoren* istorioa kontatzen zaigu; alfonbra majikoa, lanparako Geinua eta *Abu* tximinoaren laguntzaz, *Yafar* gaizkileari aurre egin eta *Yasmin* printzesaren amodioa lortu nahi du.

▼▼ Lehen zatiaren arrakastari eutsi nahirik, hemen datozkigu berriz ere *Gremlins* deabrutxoak. Kapaz dira etxea hankaz gora jarri eta parean jartzen zaien guztiarekin akabatzeke.

▼▼ Etorkizuneko Los Angeles hirian kokatuta, **Ridley Scottek** egindako kultozko filmea. Ez zen gustora geratu produktoreek inposatutako amaierarekin eta orain biak konparatzeko aukera dugu. **Harrison Ford** eta **Sean Youngekin**.

Deiak

▼ **II. Komiki Lehiaketan** lanak Kultur Etxean ikusgai igardera arte.

▼ **San Blas Jaiak.**

- Larunbatean, 16.00etan, San Blaseko V. Mus Txapelketa (ize ematea ordu erdi lehenago).

- Ostegunean, 11etan, Me Nagusia eta opilak bedeinkatzen.

- Ostiralean, 20.30etan auzo afaria. Jarraian, erromeria Iosue tokinekin.

▼ **Altuna Akizu**ren erakusketak Donostiako Olaetxea Arte Galerian (Aldapeta, 5).

▼ **Txema Muñoz**en argazki erakusketa Nahikari tabernan.

Ogia

▼ **Igandea 30:** Ogizun.



GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 29:** Mozos/Irizar.

▼ **Igandea 30:** Mozos/Amezua.

▼ **Astelehena 31:** Camacho/Ruiz.

▼ **Asteartea 1:** Puy.

▼ **Asteazkena 2:** Guallar.

▼ **Osteguna 3:** Estella.

▼ **Ostirala 4:** Mozos.

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



▼▼ **II. Komiki Lehiaketara** aurkeztutako lanak ikusgai dituzue egun hauetan Kultur Etxean. Erakusketa hil bukaera arte ziango da zabalik. 12 urtetik gorakoek ahrtu dute parte JARDUN Elkarteak antolatutako lehiaketan eta guztira 100 lan inguru aurkeztu dira. Aukera bikaina, beraz, gaztetxoek egin dituzten marrazkiak ikusteko.

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

BERGARA-GÜRE TXOKOA
Lehen mailako erregionala
Ilgandean 11.30etan Ipintzan.

BERGARA-MUTRIKU
Lehen mailako kadeteak
Ilgandean 10.00etan Ipintzan.

ESKUBALOIA

BERGARA-ARRASATE
Jubenil mutilak
Larunbatean 16.45etan Kiroldegian.

BERGARA-ZARAUTZ
Kadete neskak
Larunbatean 18.15etan Kiroldegian.

FUTBITOA

• Larunbata •

09.00: LABEGARIAIETA-ALDOKA MAL.
10.00: ERI-LA TXUPETA
11.00: OZAETA-PATA NEGRA

• Igandea •

09.00: HARTU ZAMAK-TXIPIRON
10.00: EUSEBIO II-KIROLZALEAK
11.00: UVE BIKOITZA-EGOKI
12.00: KRAI-ARI ARI
13.00: IGANDEKOAK-EH BITERRAK
16.30: ETXAGI-AMOKIBAR II
17.30: ARKUPE-KALIMOTXO
18.30: KK USAIN-MATALASCAÑAS

5

PROFESIONALAK

- Ansotegi eta Azkarate/ Balerdi eta Aldazabal II.
- Unanue eta Tolosa / Arteaga eta Galarza III.
- Alberdi III/Badiola I (banakako lagunarteko partidua).

Larunbatean,
16.30etan Udal
Pelotalekuan.



Galarzak Arteagaraekin jokatuko du.

HAGIN KLINIKA

BERGARA

Bidekurutzeta, 6 2. (Lehenko Notarian)
☎ 76 05 77

**ODONTOLOGIA
OROKORRA
HAGIN AZTERKETAK
PROTESIAK
HAGIN ESTETIKA**

LEHEN AZTERKETA DOAN!!



ZIRIPOT

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Eusko Alkartasunaren salaketa

Estatuko Kontratu Legearen 37. arauak dioenez, Herri Erakundeek hiru aurrekontu eskatu behar dituzte euren erosketak egin edota zerbitzuak kontratatatu aurretik. Bergarako Udalak legeak dioen betekizun hau ontzat eman zuen 1993ko aurrekontuak onartu zitueneko Osoko Bilkuran eta aurrerantzean 500.000 pztatik gorako eskarrietan zehatz-mehatz beteko zuela agindu.

Geroztik, hainbat hilabete pasatu da eta gure Udal Gobernuak ez du horrelakorik betetzen. Ez lege orokorrak agintzen duena bete, ez eta Udalak berak bere kasa hartu zuen konpromezua ere.

Azken bolada honetan gero eta gehiago dira aurrekontu bakar bat eskatuz Udalak egiten dituen erosketak, burutzen dituen zerbitzuak eta sinatzen dituen kontratuak. Ez dut nik esango operazio guztietan azpiketa edota azpianik dagoenik, baina bai horrelakorik gertatu ez dadin behar diren gutxieneko kontrolak jar-tzen ez direna.

Era berean, ez diot nik Udalari noizik behin eta arrazoi batez zein bestez salbuespenik egiteko aukerarik ukatuko, baina beldur naiz

azken bolada honetan ez orte den salbuespena arau bihurtu eta arau salbuespen. Nire ustez, Udalak ahalik eta azkarren ekin beharko lioke lege orokorra eta berak hartutako konpromezua betetzeari. Orain arte bezala jarraituko balu gaizki pentsatzen hasi beharko genuke eta horrek salaketa zorrotzagoa eta erremedio txarragoa izango luke.

Kontxi Irizar,
EAKO zinegotzia

Lanean jarraitzeko kemena

Ohartxo honen bidez, Bergarako AEKk eskerrak eman nahi dizkio gure herriko hainbat pertsona eta erakunderi.

Pasa den ostiralean geure herrian ireki berri dugun Euskaltegiaren inaugurazioa ospatu genuen eta geure esker onak eman nahi dizkiegu hara hurbildu zineten pertsona eta erakunde guztiei, eta bereziki Eroskiko Kontsumitzaileen Elkarteari ekitaldi xume hura antolatzeko eman zigu laguntza-gatik.

Bestalde, eskerrik asko larunbat gauean antolatu genuen bertso saiora etorri zineten guztioi eta lokala utzi zigun Mariaren Lagundia Ikastetxeari,

herri honetan era honetako ekitaldiak antolatzeko orduan daukagun hutsune izugarria betetzen duelako.

Gure lanaren hasiera honetan era batera edo bestera gure artean izan zaretenok euskararen alde iharduteko kemena eta indarra eman diguzue eta bide horretatik jarraituko dugu.

Bukatzeko esan matrikulazio kanpaina zabalik egongo dela otsailaren 11ra arte eta goizean 10.30etatik 12.30etara eta arratsaldean 5etatik 8etara, 76 05 18 telefono zenbakiak edota Masterreka 13, behea, eskuman aurkituko gaituzuela. Euskaraz maite zaituztegun.

Bergarako AEK

Berrigararen izenean

Sexu ohiturei buruzko azterketa bat egiten ari dela aitzakitzat hartuz, Berrigararen izenean norbait telefono deiak egiten ari dela entzun dugu. Berrigara ez da sexu ohiturei buruzko ikerketarik egiten ari, beraz, norbaitek Berrigararen izena erabiliz gai hortarako telefonotik hots egiten badizu, jakizu ez daukala Berrigararekin zerikusirik.

BERRIGARA

Tiira ba!



Josu Okina

AEKko euskaltegia zabalik

Joan den ostiralean AEKk Masterreka 13an zabaldu berri duen euskaltegiaren inaugurazioa izan zen. Matrikulazio epea otsailaren 22ra arte egongo da zabalik. Bertako telefono zenbakia hoako hau da: 76 05 18.

Nikaraguaren alde Santa Ageda eskean

Hurrengo ostiralean, otsailak 4, Mariaren Lagundiko Ikastolako ikasle eta irakasleak Santa Ageda eskean irtengo dira goiz eta arratsalde, bertan biltzen den dirua Nikaragua laguntza moduan bidaltzeko asmoz. Ekintza hau urtero antolatzen duten solidaritate kanpaina baten barruan kokatu behar da.

Torturaren aurkako mozioa atzera bota zuten EAJ, PSE-EE eta EAK

Asteleheneko Plenon, EAJ, PSE-EE eta EAK atzera bota zuten HBk (Amnistiaren Aldeko Batzordearen eskakizunari erantzunez) torturaren aurka aurkeztutako mozioa. Pleno hasieran Jose Ramon Kortabarrak hartu zuen hitza Amnistiaren Aldeko Batzordearen izenean. Kortabarrak komisarietan eta kartzelatan torturatzen jarraitzen dela salatu ondoren, Antiterrorista Legearen derogatzea ("*Detenitua- ren eskubideak murriz- ten dira*") tortura delitu bezala tipifikatzea ("*Torturaren aurkako kon- bentzioan sinatu zen mo- dura*") eta Auzitegi Na- zionalaren desagerpena ("*Frankismo garaiko jarraipena*") eskatu zuen.

Boto esplikazioan, Koldo Pereirak, EAJ, PSE-EE eta EAren izenean, "*ez gaude prest inolako ho- nelako proposamenik az- terizera gure herritarren aurka ETAk protagoniza-*



Osoko Bilkurak ez zuen onartu HBk aurkeztutako mozioa.

tutako extorsio, atentatu, bahiketa edota hilketak salatzen ez dituen alderdi batetik datozenean. Oinarrizko eskubideen aurkako biolazio hauen aurrean HBk eta bere in- gurukoek bere desados- tasuna azaltzen duten orduan ulertuko dugu le- jittimatuta daudela ho- nelako herri ekimenak aurkeztera" esan zuen.

Jose Luis Elkorok, ber- rriz, mozio honek urjen- tzia gehiago zuela eta hi- labete inguru itxaro behar

izan dutela adierazi zuen. Ondoren, "*alderdi demo- kratikoak zaretela esaten duzue abo betean, baina alderdi demokratikoek ezin dute honelako eritzi- rik ekarri. Ez zarete ka- paz giza eskubideak de- fendatzeko. Joku zikina egiten duzue eta Lege An- titerroristaren alde zau- dete; torturak, jipoiak eta presoen egoera babesten dituzue*" erantzun zuen. Era berean HBk presoe- kiko duen elkartasuna gogoratu zuen.

TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.
Era guztietako erreparazioak.
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia ofiziala



PEUGEOT-TALBOT

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

EZPELETA etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK
ZABALIK

Barrenkale 16, ☎ 76 20 62

EAJren Ez-Ohizko Batzarra ostegunean

Bergarako EAJk dei egiten die alderdikide guztiei datorren ostegunean, hilak 3, arratsaldeko 8etan Batzokian egingo den Ez-Ohizko Batzarrean parte hartzeko.

Karnabalak Jubilatuetan

Jubilatueta karnabal jaia iragarri da otsailaren 15erako. Ordubetan bazkaria izango da (1.700 pta., plaza mugatuak) eta ondoren, 5etatik 8etara, dantzaldia. Bazkide guztiei mozorrotzeko eskatzen zaie.

HBren bilera asteartean

Asteartean, otsailak 1, Herri Batasunaren egoera ekonomikoari buruzko bilera izango da Artatse elkartearen arratsaldeko 7.30etan. Bertan, Mahai Nazionaleko kidea den Olarra izango da.

Hitzaldia

Asteartean, 5etan, Xabier Zubimendi yoga irakasleak "Hacia la salud a través del yoga" izenburuko hitzaldia emango du Jubilatuetan.



Bosniaren Laguntzarako Bergarako Plataformaren aurkezpeneko argazkia.

Bosniaren aldeko plataforma

Eskola materiala, medikamentuak edota janariak batuko dira

Lehengo ostiralean Bosniaren Laguntzarako Bergarako Plataforma aurkeztu zen Kultur Etxean. Plataforma hau Yugoslavia ohiko errepublika horrek bizi duen egoerarekin sentsibilizatuta dagoen bergar talde batek osatu du; "Euskal Herriko beste hainbat herrirekin gertatu den modura, uste bait dugu Bergaran ere zerbait egin dezakegula bertako egoera pixkat hobea goa izan dadin". Asteartean, lehen bileran, 20 bat lagun bildu ziren Kultur Etxean; plataformaren as-

moa eskola materiala, medikamentuak, higiene eta osasun materiala eta galtzen ez diren janariak batzea da. Era berean, hitzaldiak antolatunahi dira, materiala jasotzeko lokal bat lortu eta, otsail hasieran, dirua lortzeko hainbat artista lokalekin erakusketa egingo da.

Talde honek S.O.S. Balkanesi emango dio jasotako material guztia material hori heldu behar den lekura hel dadin. Hurrengo bilera asteartean izango da Kultur Etxean 19.30etan.

MINER
ard^oak

Biltegiko telefonoa: 76 41 41

Ardo onak jakina

KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto Hispano Amerikarrean diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

HARATEGIA ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia. Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



"Miserableak", Eibarko Antzerki Ihardunaldien programaren barne.

"Miserableak" Eibarren

Jestioak egiten ari dira musikala martxoaren 12an antzesteko

Eta *Kitto!* Eibarko euskararen aldeko elkarte eta *Narruzko Zezen* taldeak antolatuta, "*Miserableak*" en emanaldi berri bat izango da datorren martxoaren 12an, Eibarko Ipurua Kiroldegian gaueko 10.30etan, Madrileko Teatro Apoloeko baimena ematen badute.

Azken egunetan arazoren batzuk sortu izan dira "*Miserableak*" musikalaren autore eskubideak zirela medio. Victoriano Gallastegi alkatea Mikel Etxeberria Jaurlaritzako Kultura kontseilari ordeare-

kin ere elkarrizketatu da eta Kultura Saila arazoa konpontzeko prest azaldu da. Landutako bertsioa euskaraz eta talde *amateur* batek eginga dela kontutan izanik, badi-rudi ez duela arazorik ekarriko.

Eibarko emanaldiaz gain, bali-teke lana Euskal Herrian zehar beste hainbat tokitan eskeintzea. Eibarko antolatzaileek "*kaltitatezko euskarazko emanaldi bat*" eskeini nahi izan dute, "*bizkuntzaren normalkuntzarako duen garrantzia*" azpimarratuz.

Gobernu Batzordearen erabakia

Ariz-Ondo gainean

Gobernu Batzordeak urtarrilaren 10ean egindako bilkuran erabaki zenez, Bergarako Kultur Ekintzak ez du orain arte bezalako dirulaguntzarik jasoko Ariz-Ondo aldirik argitaratzeagatik, "*Ariz-Ondo ez bait dator bat Bergarako Udalak geure bizkuntzaren berreskuratze, modernotze eta zabalkuntzaren alde hartutako konpromezuarekin, bereziki komunikabide modernoet dagokienez, hitzarmena sinatzean hartutako konpromezuarekin*" aktan jasotzen denez. Proposamen honen alde batzordekide guztiak botatu zuten, Javier Cendoya PSE-EEko zinegotziak ezik. Azken hau abstenitu egin zen. Erabaki honen ondorioz, Bergarako Kultur Ekintzak Ariz-Ondogatik jaso izan duen aparteko laguntza bukatutzat eman du Udalak. Hala ere, Bergarako Kultur Ekintzak Ariz-Ondo aldirik argitaratzen jarraitzen badu edozein ekintza kulturalen pareko dirulaguntza jasoko du.

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"

San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabillola)
BERGARA

INSTALAZIOAK:

Iturkintza
Berogintza
Gasa

☎ 76 28 04



Maria Isabel Hurtado bergararrak estetika profesionalaren munduan egindako lanaren errekonozimendua jaso du, Europa osoan ospe handia duen Germaine De Capuccini kosmetika enpresak banatutako sarietan lehen saria eskuratu.

- Zer suposatzen du sari honek, Marisabel?

- Ba egindako lanaren eta ikerketaren emaitza litzateke, estetika munduan azken urtetan egindako lanaren fruitua.

-Eta zertan datza estetika? Kosmetikarekin erlazioatzen da normalean, ez?

- Estetika esatean azalak dituen arazoak ulertzen da. Kosmetika, berriz, aplikatu behar diren soluzioez arduratzen da. Estetikaren barruan, azala egoera onean badago, bera mantentzea da helburua eta ahalik eta gutxienez zatartu dadin ahallegintzea, dauden arazoak deusestatuz.

- Eta nola lortzen da hori?

- Estetikak bilakera handia izan du azken urteetan. Eta daukagun heziketat aparte, etengabe erreziklatze prozesu batean murgilduta gaude, ikastaro eta horrelakoen. Era berean, garrantzitsua da izan daitezkeen arazoei aurre egin diezaieketen produktuak edu-

Maria Isabel Hurtado

kosmetika munduan buru-belarri



Maria Isabel, Germaine de Capuccini kosmetika enpresako ordezkarien eskutik saria jasotzen.

"Inportanteena kalitate oneko bizimodua eramatea da, fisiko zein estetikoki"

kitzea: zahartzearen aurkakoak..., etab. Baina inportanteena kalitate oneko bizimodua eramatea litzateke, fisiko zein estetikoki.

- Eta azalaren zahartzearen aurka zer egin daiteke?

- Profesional on baten eskuetan jarri, prozesu hori gelditzeko eta galdua dena errekueratzen sa-

iatzeko. Eta horretaz aparte norberak bere burua zaindu, bizitza ahalik eta osasuntsuena eramanez. Gehiegi zaindu beharrik ere ez dago. Azala aldatzen den heinean, zeu ahalik eta egokien horretara moldatu.

- Naturala al da zahartze prozesua gelditu nahi izatea?

- Guztiok nahi dugu

ahalik eta urterik gehien egoera onenean bizitzea, osasuna eta estetika onartzatea eta burua ere, siki-koki, ondo edukitzea. Lehen, 50 urterekin, etorkizun gutxi zuen jendeak baina, gaur egun, 70 urterekin jendea (asko behintzat) oraindik gazte sentitzen da. Baina argi dagoena zera da, gerora begira ondo egon nahi baduzu, beharrezkoa da gaurtik zaintzen hastea. Askotan jan eta edan eta gutxi lo egiten duen batek normalena da arazoak edukitzea.

- Jendea lehen baino gehiago zaintzen al da?

- Baietz uste dut. Gero eta kontzientzia handiagoa dago horrekin eta jendeak badaki zaintzearen garrantzia. Linea on bat mantendu behar da, mantentzen on bat zentzu guztietan. Eta aldatu dana baita emakumearen papera da. Gaur egun bere imajina zaindu beharra dauka emakumeak. Argi dago imajina gero eta gehiago hartzen dela kontutan, lana bilatzera-koan esate baterako.

- Eta bergararron "imajina estetiko" zelakoa da?

- Batz bestea ona, benetan. Eta mundu honetan dabilen beste jendebati ere komentatu izan diot. Hobetu daiteke, noski, baina printzipioz ondo dagoela uste dut, bai, oso ondo.


REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

**Kiroldegiko
Taberna**



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

Fabrikako euskaltegia

Antzuolako Elay fabikan langileek euskara ikasten dute

Azkenaldian euskara bizitzako esparru guztietara zabaltzeko ahaleginak ugaltzen ari dira eta duela bi urtetik Antzuolako Elay enpresan, lantegian bertan euskara erabili eta euskaraz funtzionatzeko plangintza bat martxan dago. Plangintza hori industri mundua euskalduntzeko Euskal Herrian egin den ahaleginik haundiena da eta berari buruz pixka bat gehiago jakiteko Antzuolara jo dugu eta bertan parte hartzen dutenekin izan gara.

Euskara Lantegian zabaltzeko programak bi urte bete ditu ELAY taldean eta dagoeneko hasi da igartzen. Euskara klaseak hartzen 53 ikasle daude eta zirkulo komunikati- boetan, berriz, 50 pertso- na biltzen dira.

Euskara ikasten dute- nak astean 8 ordu ematen dituzte eta zirkulo komu- nikatiboetan astero ordu- betez biltzen dira. Orain dela bi urte hasi ziren lan- gile batzuk hutsetik eus- kara ikasten eta haiek maila hartuaz joan diren bitartean, maila altuagoa zuten ikasleak gehitzen joan zaie. Dagoeneko 4. mailan daude eta gai dira

euskaraz hitz egiteko. Klaseak ematen bi irakas-

le dabilta, Agurne Barru- so eta Migel Guridi, bes- talde zirkulo komunika- tiboak eta Plangintzaren jarraipena egiteko moni- tore bat dago, Agurtzane Loidi. Zirkulo komunika- tiboak zer diren Loidik azaldu digu: "*langile eus- kaldunek euren lanak euskaraz betetzeko moti- bazioa izan behar dute.*

Sekzioka biltzen ditugu eta euren lanean euskara nola aplikatu daitekeen azaltzen diegu (Idazka- riei kartak nola idatzi, salmentetakoei euskaraz nola harremanetan jarri ea...). Esatebaterako in- geniariak euren bizkun- tza propioa dute eta zir- kuloetan dagokiñen bizte- gia lantzen dugu. Hortik sortzen da eguneko lan orria euskaraz egitearen ideia edo nominak eus- karaz jasotzearena etab...".

Euskara maila ezberdinak

Plangintza martxan hasi zenean bi esparru na- gusi aurreikusten ziren. Alde batetik euskara ez zekitenak euskaldundu eta bestetik euskaldunak



Elay taldeko 54 langilek bi ordu ematen dituzte egunero euskara ikasten.

Siaska
Dena zure
haurrarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**JOSE
LUIS**
eta
MIKEL
URTEAGA, 6

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

- Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
- Etxebarruen dekorazioa


ZAPELAITZ
Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera
San Lorentzo 25, BERGARA

alfabetatu betetzen duten lana euskaraz egin ahal izateko bai ahoz eta bai idatziz.

Lantegi bateko lan banaketak euskara maila aldetik ere gaitasun ezberdinak eskatzen ditu eta Loidik esan digunez hori kontutan izan dute. "Tailerretan aritzen direnak gutxiago behar dute, eurrei eskeini nahi diegu berba egiteko gaitasuna izatea eta ohartxoak idazteko gai izatea. Goi-ko mailetan alfabetatu behar direnak daude, eta euskara ikasi behar dutenak. Hauek denbora eta lan gebiago behar dute, baina bi kasuetan langileen esfortzua aipatzea borondatezkoa zen eta zortzi ordu lanean egon eta gero bi orduz klasera joatea meritu handikoa da".

Plangintzak 3 urte iraungo ditu eta bi urte beteko dira datorren otsailean, "brain arteko emaitzak onak izan dira. Langileentzat lehen euskaraz tutik ere ez zekien batekin orain euskaraz mintzatzea harrigarria



Agurtzane Loidi trokelgintza saileko komunikazio zirkuluan.

"Langile euskaldunek euren lanak euskaraz betetzeko motibazioa izan behar dute"

AGURTZANE LOIDI

eta pozgarria da. Baina plangintza bukatu eta gero jarraitu egin beharko dugula uste dut, oraindik ere lan asko dago eta egiteko" dio Loidik.

"Gogorra, gogorra, gogorra"

Agurtzane Loidirekin izan eta gero klase batera jo genuen ikasle eta irakasleekin berba egiteko asmoz. Zortzi ordu lan

egin eta gero gelan formal asko aurkitu genituen Pako Morcillo, Gaizka Asensio eta Patxi Kabo, hitz egiten ausartu ziren bakarrak. "Klasera euskara ikastera etortzen naiz. Lehen ere ikasten aritu nintzen, baina lantegian errelebotan gabiltza eta gauean lan egin behar nuenez ezin nuen ordu-tegi egoki bat aurkitu. Hemen, aldiz, ikasle gehienak nire kasuan daude

BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

JOSEFINA

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz 4 EIBAR

☎ 79 63 42 ARRASATE

**T
GANBARA**

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**B
E
R
N
A**

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27

eta ordutegia egokituta dugu" adierazi digu Asensiok.

Morcillo euskararekin harremanetan plangintzari esker sartu zen eta berak esan digunez: "gogorra da klasera etortzea, baina merezi du. Nire alabekin euskaraz hitz egiten dut eta horrek poza ematen dit". Ikasleekin izan ginen bitartean irakasleak ere bertan zeuden eta Guridiri galdetu

genion ea berezitasunik baduen langileez osatutako talde bati klaseak emateak. "Bai, euskaltegi normal baten era ezberdinetako ikasleak ditugu, bemen, berriz, ikasleak antzerakoak dira eta helburua ere ez da goi mailako euskara lortzea. Helburua elkarrizketarako gai izatea da eta horrek lana erraztu egiten du. Gainera hauek errelebotan dabilta eta euskal-

"Helburua ez da goi mailako euskara lortzea, euskaraz berba egiten ikastea baizik"

MIGEL GURIDI

tegi normal batera joan nabi baldin badute, talde baten integratu beharrean bi taldetan integratu behar dira eta horrek pegak sortzen ditu. Era berean hiztegi aldetik ere behar berdinak dituzte".

Lantegian oraindik ikasle-langileek ez dute oraindik nahi beste euskara hitz egiten, baina Kabok dioen bezala "garrantzitsuena hitz egitea da eta hortan gabilta".

Datu eta argipen batzu

Lantegietan euskara bultzatzeko plana Eusko Jaurlaritzak, EAEko 3 diputazioek eta ELHUYAR taldeak sinatu zuten akordio batetik dator eta Elay enpresa taldeak plangintza onartu zuen duela bi urte. Plangintza martxan jartzeko giza baliabideei dagokienez ELAYk monitorea kontratatu du eta baliabide teknikoak, berriz, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak ematen ditu eta halaber, HABErekin ikastaroak emateko zerbitzua eta planaren jarraipen zerbitzu teknikoa prestatzeko akordioa dago. Plangintzaren finantziaketa Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak, HABEK eta ELAY taldeak hartu dute.

ELAY taldeak hiru lantegi ditu: Balzers 20 langilekoa guztiak euskaldunak; Seytra 44 langilekoa %65a euskalduna; eta Elay, 97 langile, %65a euskalduna. Plangintza aurrera eramateko lehenik eta behin instituzio eta enpresaren arteko akordioa beharrezkoa zen eta ondoren langileek erabaki zuten aurrera eramatea.



Alfabetatze kurtsoko Balzers-eko taldea.

ARGAZKI ERAKUSKETA



TXEMA MUÑOZ

NAHIKARI

TABERNA

Masterreka, 20 BERGARA

☎ 76 57 71

aek

EUSKALTEGIA EUSKARA IKASTAROAK

- 2, 3, 5 ordu • Maila guztiak • EGA • Alfabetatzea •
- MATRIKULA EPEA: Otsailaren 22ra arte zabalik.
- INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:
 - Goizez: Bergara AEKko Euskaltegian, 10.30etatik 12.30etara.
 - Arratsalde: Bergara AEKko Euskaltegian 5etatik 8etara.
- Masterreka 13, behe eskuma.
- Tfnoa: 76 05 18

**IZAN EUSKALDUN!!
MATRIKULA ZAITEZ!!**



**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneferako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50

Estatu Batuetako zakil-mozte kasuaren sententziari buruz zer deritzozu?



Pablo Rodriguez
29 urte, langilea

Injustizia bat. Gauza bat da tratatu txarrak jasotzea baina pasatu beharrik ez dago. Juiziora eraman eta kitto.



Ramoni Saez
66 urte, langilea

Ondo ikusten dut printzipioz. Lehenago ere zerbait egingo zion gizonak eta...



Izarra Arriaran
26 urte, langilea

Ondo, emakume bat txarto tratatzen dutenean ez nau harritzen horrelako egoera batera heltzeak.



Julio Gabilondo
65 urte, jubilatua

Prentsan azaldu dena dakit, besterik ez. Baina itxura batean gizonak merezita zeukan.



Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO
ALTZARIAK,
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.
SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARREKALE, 6 ☎ 76 25 96



TB, BIDEOAK, KAMARAK,
HI-FI EKIPOAK,
SUPER TRINITRON TB.
BARREKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51



**Tintinetik
Titinera**

Elgetar pelotazale amorratu baten ahotan entzun nuen lehenengo aldiz Titinen izena: "Azelakotxe aurrelari alai eta ikusgarria dagoen afizionatueta. Gantxoak bikain erabiltzen du Titin honek". Handik hilabete gutxira, Barcelonan, Joku Olinpikoak hasi baino egun batzu lehenago, Espafiako Pilota Federazioaren zuzendari teknikoa zen Jose Mari Etxeberriak beste hau bota zidan: "Bada pilotari bat selekziara ekarri ez duguna, baina profesionaletan zeresana emango duena: Titin. Urrezko domina irabazteko pelotari seguruak aukeratu ditugu, baina espektakulua ikusi nahi duenarentzat aurrelari aparta da errioxar hori".

Urte ta erdi beranduago, binakako txapelduna izatea eta Errioxan pelotarako zaletasuna berpiztea lortu digu. Ez hori bakarrik. Pixkanaka, frontoi guztietan bere armak eta hutsu-neak erakusten joan da: Astelenan, Anoeta, Beotibar, Deportivo, Oguetn, Bergaran... Tintin deitzen ziotenak, n-a kentzen joan dira. Profesionaletan sartu bezain laster hasi zen lurrean bueltaka eta ondoan pasatzen ziren "euli mando" borobil denei kolpea jaurtitzen. "Asegarcek jartzen dituen pelota arin horrekin erraz egiten du bere jokua. Ikusiko dugu karga gehiagorekin nola moldatzen den" entzun genuen hasieran. Baina Titin ez da kokiltzen den mutila. Txapela janzteko era guztietako pelotak jo behar izan ditu.

Joan den udaran Titinmaniari buruz hitzegiten hasi ginen. Bestelako eritziak ere azkar azaldu ziren: "Titinmania ez, mania a Titin zeukagu guk". Badirudi bere inguruan ezin dela orekarik gorde: txuria ala beltza. Bere mesederako, noski. Goi mailan izena hartu duen seinale.

Joseba Lezeta



**Bergara
Bosniaren alde**

Gure herrian badago jende behartsua. Hain hurbil ditugu, askotan ez baitiegu garrantzirik ematen. Askotan eguneroko bizi-jardunarekin lotutako gauza txikiak izaten dira eta ez dugu euretan erreparatzen harik eta kentzen dizkiguten arte. Gero geuri egokitzen zaizkigunean, orduan larritzen gara. Hemen, hementxe bertan ere, denek ez dituzte "Ongizatearen Estatuak" aldarrikatzen dituzten giza-eskubide oinarrizkoenak. Hori hemen.

Eta urrutitxoago ere bada arrazoirik asko gure elkartasuna-ahalegina martxan jartzeko. Gure herri honetan asko dira helburu goraiparrien alde lan egiten duten elkarteak. Uste izatekoa da, beraz, hemengo jendeak izango duela kezkarik munduko beste lurralde batzuetakoek sufritzen dituzten injustiziazko egoeren aurrean.

Beharbada, noizbaitzutan hemen bertan bizi izandako egoeren oroitzapena ere ekarriko ziguten. Bai, gure herrian jende behartsu asko dago. Beharbada, norbaitek egin beharko luke zerbait. Eta beharbada, "norbait" horretan gure herriko erakundeek partehartze haundia izan beharko lukete.

Baina gauza bat dago argi, zerbait egin nahi duenak aurkitzen ditu horretarako bitartekoak, ezer egin nahi ez duenak, berriz, aitzakiak aurkitzen ditu.

Jesus Mari Kalboetxeaga

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

AGENTZIA: **VITA** **ZURICH** **UNIBER**
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

CAUDAL  **HISPANA**

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Pepelu

Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

EDEL

TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

LEXUKUN


BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



□ JARDUNeko afaria

Larunbatean JARDUN Elkarteko lantaldeetan lanean dihardutenen afaria izan zen Pertxa Elkartean. Guztira, 50 bat lagun bildu ginen ondo afaldu (primerakoa Pertxakoek gertatutako afaria) eta, bide batez, **Edurne Arenaza** orainarteko JARDUN Elkarteko dinamizatzailea eta **Antton Arrillaga** eta **Josu Okina** BERRIGARAko komikilariei omenalditxo bat eskeintzeko. Edurnek JARDUN utzi berri du eta Antton eta Josuk, berriz, oporralditxo batzuk hartuko dituzte. Hirurek (argazkian) oroigarri bana jaso zuten. Zorionak eta laister arte!!



□ 60. urteurrena

Joan den abenduan beren ezkontzaren 60. urteurrena ospatu zuten **Pedro Mujika** eta **Maria Mujika** bergararrek (Juan Ignacio Aldanondo parrokoak ezkondu zituen Santa Marinaran 1933an). Hori ospatzeko, abenduaren 27an bazkaria egin zuten Osintxuko Txuringo jatetxean beren seme-alaba eta ilobekin, egun ahaztezina igaroz elkarrekin. Zorionak Maria eta Pedrori eta segi horrela!!

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI




□ **Komiki lehiaketako irabazleak**

Ostiralean JARDUNek antolatutako **II. Komiki Lehiaketaren** sari banaketa egin zen Kultur Etxean. Guztira 85 lan aurkeztu ziren 3 kategorietan eta argazkian agertzen direnak izan genituen irabazleak: Jon Alvarez eta Gorka Ortega (O.H.O.ko 6., 7. eta 8. mailakoen arteko irabazleak), Ohian Vega eta Ion Gurutze Biteri (2. saria), Josu Otaegi, Garikoitz Badiola, Gaizka Esparza eta Garikoitz Garitano (bigarren saria hauek ere), Amaia Unzurrunzaga, Ainhoa Lekuona, Naiara Beistegi eta Nerea Arrese (akzesita); Mireia Olabe (14 urtetik 18ra bitartekoan artean irabazlea), Ander Aretxaga eta Rafa Herran (2. saria) eta Enrique Lopez de Arroiabe (akzesita); Bittor Rodriguez (18 urtetik gorako irabazlea), German Larrañaga (2. saria) eta akzesita lortu duen Alex Ugalde. Aukeratutako lanen erakusketa igandera arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. Ez galdu aukera!!


□ **Pelota kiniela**

Asmatzaile bakarra izan dugu aste honetan **Berrigarako** pelota kinielan. Ez zen erreza ez finaleko emaitza asmatzea (Titin eta Arretzek 22 eta 14 irabazi zieten Retegi eta Belokiri, 11 eta 4 erdian) eta egindako 303 boletoetatik batek bakarrik jarri du emaitza zuzena. Asmatzailea nor? Ba pelota sekzioko delegatua den **Luis Gutierrezek** (argazkian) eraman du 42.420 pta.ko saria. Ordua zen pelota munduan dabilen norbaitek saria eramateko... Besteok, eskuz banakako txapelketan aukera berri bat izango duzue.




Zertan dihardute ba?

MUGURUZA ANAIAK




Igandean Uberan jokaturako beteranoen txapelketako finalean, Elosuko Muguruza anaiek 22 eta 17 irabazi zieten Bergarako Alday eta Gutiri. 3. posturako, Agiriano eta Osak Aranzeta anaiei nagusitu zitzairen.

IÑIGO RAMIREZ



Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, antzuolar honek Antzuolako mapa egin berri du. Mapa horretan Antzuolako baserri, auzo, ermita, etab. jasotzen dira. Udalak 2.000 ale kaleratuko ditu.

BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialia
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaltz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66 BERGARA

Umore giroan

Santa Agedatik igeska

Santa Agedako etxe aundixan zeguan plaentxiar batek iges egin dau bertatik. Arrapatu naixan, berriz barruan sartzeko, jarraitzen detsa San Juan de Dios-ko fraile batek. Diarka esaten zetsan:

- Urlixa, gelditu zaitxe, gelditu zaitxe!

Gure Urlixak erantzun zetsan:

- Geratzekotan, geratu zaitxe zeu, zuri ez detsu ifork jarraitzen eta.

Ume meia

Ama batek eruan zeban Eibarko mediku entzutetsu batengana bere semetxua.

- Zer sentitzen dau ba umetxuak?, diño sendagilleak.

- Ara ba... meia dao-ta...

- Jateko gogorik badauka?

- Bai, ondo jaten dau, baiña meia dao. Indisiño batzuk edo ez litxuzke artuko ia loditzen dan?

Sendagilleak orduan:

- Ze indisiño ta ze demontre!

Saldu eifñ biar dozu pixura txarrixan moduan ala?

Pedro Zelai

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Ramon Etxanizek (eskumatik hasita lehenengoa) zuzentzen zuen txistulari taldeak ere parte hartzen zuen orain dela 20 urte egiten zen "Anaitasun Karabanan". Argazkian, Udol Txistulari Taldea gaur egun.

Anaitasun karabana Santa Agedara

Bihar Santa Agedara egiten den Anaitasun Karabanaren 5. urterrenarekin bat etorritz, Alkartu-Naik eta Gurasoen Elkarteek antolatutako ohizko karabana ere burutuko da. 3.30etan irtengo da San Martin Agirre plazatik.

Herriko hainbat artistak eta taldek parte hartuko dute karabanan eta, gero, Santa Agedako osasun-egoitzan ohi den jaialdia ospatuko da. Artisten artean, besteak beste, izango ditugu: Julio Larrañaga, Ki-

kio, Pako eta Iñaki (pailasoak), Sui-naga ahizpak, Alai abesbatza, Ramon Etxaniz zuzendari duen txistulari taldea, Jubilatuetako txistulariak, Aspertu-Arte, e.a.

Ohi den bezala, "La Vergaresa" autobus konpainiak autobus bat jarriko du artisten eskura, hauen joan-etorrietarako.

La Voz de España.
1974-II-1. Bikuña.

Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak

ileapaindegia
eder gela

disdira

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI Altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

ALITXU BRUNET AGIRRE

Les Misérables elaberria Victor Hugok idatzi zuen. Nobela horretan oinarritutako izen bereko musikala, berriz, mundu osoan antzeztu da eta ospe handia izan du gainera. Bergaran Errege Egunean antzeztu zuten Musika Eskolakoek. Musikala 14 hizkuntzatarara itzuli da orain arte, tartean euskarara. Cameron Macintoshek bultzatutako muntaia 1985ean estrelnatu zen lehen aldiz Londresen. Alitxu Brunetek asmatu ditu hiru galderok eta berak izan du zortetik gehien.

Berarentzat izango da **HERRAN ETXEA**k emandako sari bikaina. Zorionak Alitxuri eta besteok ez etsi, segi jokatzten.

HERRAN ETXEA



Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4 ☎ 76 37 53


- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- **BERO-AKUMULADOREAK**

FAGOR



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



ALITXU BRUNETek jaso du aste honetan HERRAN ETXEAK emandako saria.



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUA JANTZIDENDAK emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

"Dinomaniak" jo gaitu azken aldi honetan eta dinosaurio zaletasuna izan berri den Komiki Lehiaketako lanetara heldu da, animalia erraldoiok marrazki bihurturik bazterrak bildurtzen ikus daitezkelarik Kultur Etxean ikusgai diren lanetan. Aipatutako lehiaketako hirugarren taldean saritutako lanen batean edo bestean azaltzen dira narraziok.

Nola dute izena dinosaurioak pertsonaia dituzten saritutako lanok eta bere egileak?



_____ izena

_____ abizena

_____ telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Zapi zuriak Agorrosinen

Javi Perezek entrenatzen dituen mutilek izugarritzko garaipena lortu zuten joan zen igandean Agorrosinen, Rotetaren aurka. Zazpi gol sartu zizkieten donostiarrei, Ibon eta Ivanek bina sartu zituzten, eta Aranak, Bonik eta Alatzek bana. Gol ikusgarriak izan ziren gainera, Ivanen bigarren gol loratua esate baterako. Bergara bosgarren postuan aurkitzen da sailkatuta eta igandean zortzi Aloña Mendi liderra hartuko du Agorrosinen. Mutrikurekin batera gol gutxien jaso dituen taldea da (16 gol).

Euskadiko mendi bizikleta opena jokatuko da Uberan domekan

Uberako Jai Batzordeak antolatuta, igandean goizeko 11tan, mendi bizikleta proba jokatuko da Uberan. Proba honen 3. edizioa, lehen aldiz, Euskadiko Open Txapelterako baliogarria izango da: 10 proba izango dira denera Openaren barruan eta Uberakoa lehendabizikoa izango dugu.

Antolatzaileek 4 kilometroko ibilbidea prestatu dute eta, partaidetzari dagokionez, 4 kategoria bereiztuko dira: gazteak, emakumeak, seniorrak eta beteranoak. Gazteek 3 itzulera eta gainontze-koek 5 eman beharko dituzte. Goizeko 11tan gazte eta nesken proba korrituko da eta ondoren seniorrak eta beteranoak aterako dira.

Lasterketan federatu-



Obando, Martinez de Guereñu eta beste asko igandean Uberan.

ak bakarrik parte hartu ahal izango dute (antolatzaileen esanetan 200dik gora egon daitezke) eta izen-ematea karrera hasi baino lehen egingo da. Partaideen artean, mendi bizikleta probetan aritzen diren onenak etortzea espero da, hala nola Eriz

anaiak, Obando, Martinez de Gereñu eta Ion Albizu seniorren artean edota Joakin Aspiazu, Canarias eta Iurrebaso beteranoak. Euskal Telebistak ere bere kamaren presentzia baieztatu du iganderako. Uberako probak 200.000 pta.ko aurrekontua du.



Axen Garitano bikain

Axen Garitano bergararrak hirugarren postua eskuratu zuen astebukaeran Alto de Campon (Kantabria) jokatutako Espainiako Txakur Nordikoen Lasterketa Txapelketan. 50 partaideek 8 Km.ko ibilbidea bete behar izan zuten bi txandetan; Axenek bigarrenen lortu zuen bere denborarik onena 18 minutu eta 28 segundurekin eta biak zenbatuz gero, hirugarren sailkatu zen. Era berean, bere kategoriko (6 txakurrekin) lehena izan zen. "Ibilbidea gogorra zen baina a tope irten ginen eta azkenean emaitza ona lortu. Pozik gaude baina orain babesle berrien beharra daukagu" adierazi digu. Astebukaera honetan, Baqueira Bereten, Liga Katalanean hartuko du parte.

20 urte zure
zerbitzura,
kalitatezko
altzariak
eskaintzen

ederTU

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57



Bergarako kronistak, 1972.

Astlehenean San Francisco de Sales, kazetarien patroia eguna izan genuen. Hori dela eta, 1972an herriko "kronistak" zirenen erretratu ekarri dugu orrialde honetara. Orduan herriko kazetariak ere bere patroia eguna ospatzeko ohitura zuten eta argazkian Lasa Jatetxean egindako bazkari batetan ageri dira.

Ezkerretik eskumara: Jose Maria Larrea (El Diario Vasco), Carlos Gutierrez (Radio Nacional), Santos Alustiza (La Voz de España), Mari Carmen eta Juanita Lasa, Jose Mari Urrutia (El Correo-Loiola Irratia), Marcial Moreno (Norte Express), Juan Luis Bikuña (Radio San Sebastian) eta Luis Mari Garitano (Loiola Irratia Kirolak).

Argazkia: Maite Sutnaga



LARRUAZALAREN AZTERKETA DOAN

Zure azala aldatua baldin badaukazu; deshidratazioa, aknea, koipea, zimurrak, ahuldura..., nabari badituzu eta gustora ez bazaude, etor zaitez, etor zaitez lehenbailean, zure azala **DOAN AZTERTUKO DIZUGU** zure arazoaren arrazoia ezagutzeko.

LILURA EDERTZE INSTITUTUAN itxaroten zaitugu.
Bidekurutzeta 7 zenbakia, lehen pisua. ☎ 76 31 71

**PELI NARBAIZA IBARZABAL
ASEGURU OROKORRAK**

*Etxebizitzatarakoak,
istriputarakoak, jubilario planak,
gaixoaaldietarakoak...*



Matxiategi, 3 5.B
BERGARA

Matxate General de Seguros

☎ 76 47 57

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

**Bildotsa, txahala eta
oilazkoak**

Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

**BERGARESA
MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77



**DEBA
GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

ETXEBIZITZA

Garajea alokatzen da Iargarai kalean. ☎ 76 13 93.

Etxebizitza salgai Iparra- girre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua alokatzen da Mat- xiategin. ☎ 79 37 97.

Garajea salgai Kruz Ga- llastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai San Loren- tzon. ☎ 76 27 35.

Berriztutako pisua salgai. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Etxea salgai Katabian. ☎ 76 53 30.

Garajea salgai Iparragi- rren. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatzen da. Bu- legoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Mugerzan etxea salgai. 101 m2. Behe solairua, te- rraza, lorategi eta ortua- rekin. ☎ 76 12 86.

Etxe bat alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

Garajea salgai Sta. Mari- nan. ☎ 76 43 89.

Garajea salgai Iargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Etxea salgai Masterre- kan. ☎ 76 48 30.

Bi neskekin pisua kon- partituko nuke Matxia- tegin. ☎ 76 46 15.

DENETARIK

Omega erloju bat galdu dut. Doratua eta narruzko korreaduna. ☎ 76 27 83.

Talbot Samba (SS-S) sal- gai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

Viallaroo PK50 motoa salgai. Berria. ☎ 763386.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peugeot 205 kotxea sal- gai (SS-X). ☎ 760905.

Petrikillo, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

Sega Megadrive salgai. 4 jokurekin. ☎ 76 25 12.

Onix motorra (50 cc.) ia berria salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

Portugalgo marmolezko mahala salgai, Singer jos- teko makinaren basea- rekin. 15.000. ☎ 765231.

Egunero goizez Gastelz- era joateko kotxea behar dut. ☎ 76 03 20.

Ebakigailu elektrikoa, pisu elektrikoa eta era- kustegi frigorifikoa salgai. ☎ 76 59 28/23 65.

Renault 21 TXE bat sal- gai. 1988koa. ☎ 763868.

Butanozko Mepamsa es- tufa salgai. ☎ 76 01 13.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

R-18 diesel (familiarra) eta Ford Fiesta salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Lau pertsonarentzako bi litera salgai. Koltxoiare- kin. ☎ 76 37 29 (Martin).

8 hilabeteko ume baten- dako kotxea erosiko nu- ke. ☎ 765231 (gauze).

Peltz eskalada ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

LANA

Gutxitu sikiko, elbarri edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Lanak ordenadorez pa- satzen ditut. ☎ 797759 (Fernando).

Pertsona zaharrak zain- duko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Propaganda banatuko nu- ke. ☎ 764094 (Jaime).

Haurrak eta gaisoak zain- du edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

Ingeleseko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zaindu eta etxe- ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 762290 (Ainhoa).

Haurrak/zaharrak zaindu eta etxeko lanak egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

Ingeles Filolojia lizen- tziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.

Latin, Euskara eta Fran- tses klaseak. ☎ 76 02 99.


Hildakoak

- Jose Aldazabal Lizarralde*
urtarrilak 22, 70 urte
- Ines Oleaga Leantzabarrutia*
urtarrilak 24, 90 urte
- Alejandro Azkarate Jauregi*
urtarrilak 25, 71 urte

Jaiotakoak

- Laura Axpe Valle*
urtarrilak 11
- Julen Garmendia Mujika*
urtarrilak 19

PINTURAS BERGARA



Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...



**BEROGAILU, GAS
eta
ITURGINTZA
AZTERLANAK**

**BAINU
DISEINAKETA**

**ZABETX
INSTALAZIOAK**

**Masterreka, 14
BERGARA
☎ 76 54 14**

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO
GARANTIA**